

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

**Hutsen zuzenketa, 2022ko abenduaren 26ko ALHAOn (148. zk.) argitaratutako 3553 zenbakiko iragarkiarena, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarri orokorreari eta espezifikoei buruzkoa**

Alkatearen 2022ko abenduaren 16ko Dekretuaren bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesua arautuko duten oinarri orokorrak eta espezifikoak onetsi ziren, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.2 artikulua araberan. Prozesu horren deialdia 2022ko maiatzaren 30eko ALHAOn (62. zk.) argitaratu zen.

Iragarki horretan akats bat aurkitu denez, honen bidez zuzentzen da:

Honako hau dioen lekuan:

8.1. Merezimenduak betetzeko erreferentzia datak eta parte hartzeko baldintzak.

Alegatzen diren merezimenduak edukitzeko erreferentzia data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

– Euskararen ezagutza, 8.10 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dena.

– Dagokion elkargo profesionalean elkargokide izatea, lanbide arautu bati dagozkion eginkizunak betetzen dituzten eskalak edo lanpostu zehatzak direnean. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da hori.

Eskabidea aurkeztean eta merezimenduen alegazioa eta auto-balorazioa egitean, hautagaiak ez du aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen dokumenturik, 7.2 oinarrian jasotakoaren arabera.

Merezimenduak kasuan kasuko deialdia ALHAO-ean argitaratu aurreko egunera arte baloratuko dira.

Beste hau esan behar du:

8.1. Merezimenduak betetzeko erreferentzia datak eta parte hartzeko baldintzak.

Alegatzen diren merezimenduak edukitzeko erreferentzia data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

– Euskararen ezagutza, 8.10 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dena.

– Dagokion elkargo profesionalean elkargokide izatea, lanbide arautu bati dagozkion eginkizunak betetzen dituzten eskalak edo lanpostu zehatzak direnean. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da hori.

Eskabidea aurkeztean eta merezimenduen alegazioa eta auto-balorazioa egitean, hautagaiak ez du aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen dokumenturik, 7.2 oinarrian jasotakoaren arabera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Azilu, 2023ko maiatzaren 3a

*Alkatea*

AMAYA SAGASTI JIMÉNEZ DE VICUÑA